



Funtsezko elkarteak:

Proposamena aurrera egiteko beharrezkoa da pixkanaka-pixkanaka jendea app-a ezagutzen joatea, horretarako hainbat bizikleten konpainiekin hitzarmenak izatea beharrezkoa izango litzatekeela uste dugu. Horregatik, bizikleta konpainia ezagunekin kontaktuan jartzen saiatuko ginateke (adibidez: BH, Orbea eta Merida) eta horrela, haiekin aliantza sortu. 3 konpainia horiekin, bion arteko interesak adostuko ditugu, beharrezkoak ditugun baliabideak eskuratuko genituzke biok. Hau da truke bat bezalakoa izango da. Honen bidez, guztiok onurak lortuko ditugu.

Guk haiei propaganda egingo diegu lokalean, eta app-ean haien iragarkiak eta bideoak jarriko ditugu. Trukean, BH-koek haien bezeroei, zerbait erosten duten bakoitzean, propaganda papera emango diete non gure app-ari buruzko informazioa agertuko den (gure lokalaren helbidea, telefonoa eta email-a barne). Horrela, jendeak gure existentziari buruz jakingo du, eta horrek gure proiektua aurrera egitea ahalbidetuko du. Beste alde batetik, Orbeak, propaganda egitearen truke, aldez aurretik bion artean zehaztutako diru kantitatea emango digu eta amaitzeko, Meridak, propaganda egitearen truke, osagarriak bidaliko dizkigu. Horiek, gure lokalean salduko ditugun osagarriak izango dira.

Horretaz gain, beste enpresa, marka edota beste app batzuekin kontaktuan jartzea lortuko bagenu, gure app-ean iragarkiak eta bideoak jartzearen truke ere diru gehiago lortzen saiatuko ginateke. Aipatu ditugun lehen hiturekin izan dira guri aliantza bat sortzea gustatuko litzazkigukeenak, egokiak iruditu zaizkigulako gure app-a zertarako den kontuan izanda; baina beste enpresa batzuekin beste aliantza batzuk sortzea ere gustatuko litzaziguke.

Amaitzeko, gaur egun jende guztiak internet erabiltzen duenez eta gazteen artean bereziki instagram eta youtube direnez sare sozial ezagunenak eta arrakastatsuenak, pentsatu dugu bertan gure aplikazioaren iragarkiak jartzearen bidez, jende gehiagok ezagutuko gintuzkeela. Beraz egokia ikusi dugu, haiekin truke bat egitea: guk haiei dirua eman eta haiek guri propaganda egin, iragarkien bidez.

